



INDARKERIA MATXISTA PANKARTAZ HARAGO EKITEKO ORDUA

Bortizkeria orok ez du neurriko erantzuna

Aurtengo udako jaietan zalaparta izan da han eta hemen. Emakumeek eraso sexistak salatu dituzte, inoiz baino gehiago. Ondorioz, mota bateko edo besteko erantzunak antolatu dituzte indarkeria matxistaren aurka ari diren taldeek. Ekintza batzuek deseroso sentiarazi ditu batzuk, beste batzuk haserretu egin dira emakume feministek erasoei irmo erantzun dietelako.

Pankartaren atzean gizartea eta erakunde publikoak elkartzea lortu dela uste dute mahaikideak, eta ontzat hartzen dute. Ordea, indarkeria mota larrienetan ateratzen gara kalera, batik bat emakumeren bat hiltzen dutenean. Harago jotzeko garaia dela uste du mugimendu feministak, politikoki zuzena den horretatik ardurak hartzeko garaia dela eta eraso arintzat hartuak direnak ere irmotasun betez salatzeke ordua dela.

Iruñeko gaueko manifestazioaren ereduak garrantzi berezia izan du mahai-inguru honetan eta mugimendu feministaren gogoeta sendoen berri jakiteko aukera ederra izan da.

Uda beroa izan da. Sexu erasoak eta eraso sexistak izan dira hainbat herritako jaietan. Erasoei erantzunak jaso dituzte, eta era berean erantzun horien aurka ere erreakzioak izan dira. Mesedez, egingo uda honen balorazioa?

MAITENA MONROY. Udan kanpoan izan naiz eta gertu-gertutik ez dut jarraitu. Ñabardurekin bada ere, badago azpimarratu beharreko gauza bat, ondorioa positiboa da: lehen salatzera ausartzen ez ziren bortizkeria salatzen hasi dira emakumeak. Lehen esango zuten: “Halako gertatu

■ **Egilea: Onintza Irureta Azkune**
Argazkilaria: Dani Blanco.

Azala: Joseba Larratxe · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.eus **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.389. zenbakiarekin banatua, 2015eko abenduaren 27an)



Ezkerretik eskuinera Maitena Monroy, Maria Viadero, Idoia Arraiza.

zait, baina beste inork ez du jakingo”. Errua eta lotsa barneratuta zeuden. Aldaketa dago, ohiko tratu txarretan eta indarkeria sexualean salaketa kopuruak gora egin du, gehiago ausartzen gara.

Salaketek hautatzearen kontrako eta eskubideen kontrako taldeen erantzuna dakarte. Jada ez da neomatxistez edo matxistez hitz egin behar, matxista izateaz gain hautatzearen kontrakoak eta eskubideen kontrakoak dira. Emakumeen aurkako bortizkeria giza eskubideak haustea da. Talde horiek diote emakumeak biktimizatu egingen direla eta salaketa faltsuak jartzen ari direla. Aurreiritzi horren kontra lan egin behar dugu.

Beste gauza baikorra, Bilbon behintzat (hori ezagutzen baitut ondoen), indarkeria sexistaren aurkako erantzun maila da, giza eskubideen alde

gauden populazioa kontuan hartuta gutxiengoa bada ere. Udan, maiatzetik urrira bitarte, jaiaren barne hartzen da emakumeak behartzea. Oraindik gizon matxista askoren imaginarioan ez da puskatu. Oro har emakumeen eta emakume gazteen erantzuna garrantzitsua izaten ari da, asaldatu dira.

Ikusi behar duguna da ea ematen ari garen erantzunak nahikoa diren, nik uste dut ezetz. Egia da, erailketetan baino ez gara ateratzen kalera, eta zehazki indarkeria sexual edo sexistaren aurka.

MARIA VIADERO. Erantzunen eta suminduraren uda izan da. Talde askok balorazio baikorra egin dute. Jai giroan gertatu diren eraso sexistak salatzeraz sarri ateratu da kalera. Ohikoena bestelako erasoak salatzea da, feminizidioak edo erailketak

adibidez, gizarteak gogorragotzat dituenak. Aurten, jai giroari, eremu publikoari, lotutako indarkeria salatzea desberdina izan da. Indarkeriaren konplexutasuna zabaltzen lagundu du.

Jendearen erantzunei esker, jaietan eta hedabideetan protagonismo askoz handiagoa lortu du gaiak. Indarkeria mota desberdinen abanikoa zabaltzea lortu da, nola batzuk besteekin lotuta dauden ikustea lortu da. Jai giroko eraso sexistak justifikatzeak indarkeria onartzen duen imaginarioarekin dauka zerikusia, sotila iruditzen zaio lerre dariola ibiltzea edo txosnetan eskua sartzea. Eztabaida soziala sortu da, erantzun probokatzaileri esker.

Konpartsetako jendea entzun nuen esaten: “Aurten eraso sexista gehiago izan dira”. Ez, emakume asko joan ohi da etxera bere buruari esanez, “kabroi batzuek, matxista ustel batzuek, eskua sartu didate”. Salaketa askoz publikoagoa egin da eta konpartsek eta jaietako taldeek erasoak salatzeke ardura beregan hartu dute, bai jaien antolaketan dauden talde feministek, baita bestelako taldeek ere. Erasoen aurkako protokoloak barneratzen ari dira, eta abar. Eremu publikoan gertatzen diren indarkeria sexista mota askoren gainean sakontzen ari gara, horietako batzuk sotiltzat hartuak, eta ez dute ezer sotiletik. Askoz muturrekoago indarkeria motak justifikatzeko baliatzen dira.

M a h a i k i d e a k

■ IDOIA ARRAIZA ZABALEGI

Euskal Herriko Bilgune Feministako kidea



Iruñean 1987an jaio eta bertan bizi da. Ikerketa feministak eta generoko masterra egin zuen Euskal Herriko Unibertsitatean. Gaur egun Emagin elkarteko koordinatzailea da. Bereziki indarkeria sexistako ikastaroak eta autodefentsa feministako tailerrak ematen aritzen da. Farrukas talde feministako kidea da. Psikologia ikasi zuen eta Gestalt psikologia eskolako masterra egina dauka.

■ MARIA VIADERO ACHA

Mugarik Gabeko genero arduraduna



Bilbon 1977an jaio eta bertan bizi da. Mugarik Gabe nazioartean garapenerako lankidetzan aritzen den gobernu kanpoko erakundea da. Maria Viadero 2002tik bertako genero arduraduna da. Azaroan Indian egin ziren Beltzez Jantzitako Emakumeen 16. topaketetan parte hartu zuen. Gizarte Lanak eta Soziologia ikasketak ditu, ikerketa feministak eta generoko masterra ere bai.

IDOIA ARRAIZA. Mariak esandakoarekin ados nago. Gaia ikusarazi da salaketa sozial eta publikoen bidez eta elkarretaratzeek oihartzun mediatikoa izan dute. Garrantzitsua iruditzen zait azpimarratzea mugimendu feministaren borrokari esker lortu dela. Dena dela, aldaketa kuantitatibo eta kualitatiboa egon da, jai batzordeek edo jaien antolatzaileek protokoloak onartu dituzte, horren ondorioz elkarretaratzeak egin dira, eta abar. Gero ikusiko dugu protokoloarekin eta elkarretaratzearekin nahikoa dugun edo zer gehiago egin behar den erasoak gelditzeko.

Indarkeria motetan sakontzeaz ados nago Mariarekin. Izebergaren irudiarekin azaltzen dut

■ **MAITENA MONROY ROMERO**
Autodefentsa feministan aditua



Bilbon jaio zen 1972an. 1986. urtetik ari da autodefentsa feministari lotutako ikastaroak ematen, 500dik gora egingo zituen. Euskal Herrian eta munduan zehar eman ditu tailerrak. Hainbat talde feministatan hartu du parte: Bizkaiko Emakumeen Asanblada (1986-2011), Matarraskak (1985-1995), FeministAlde. Lanbidez fisioterapeuta da Galdakoko ospitalean.

nik. Erasoa sexista zer den eta zer ez den, marra gero eta beherago dago. Orain arte tratatu txarrak bikotean, erailketak eta gauean ezezagun batek egindako bortxaketa aipatzen ziren, eta orain jarrera sotilagoak edo halatzat hartzen direnak ere zerrendan sartzen ari dira. Horiek ere larriak dira eta berdin-berdin salatu behar dira.

Hala ere, esan behar da indarkeria asko pairatzen segitzen dugula, eta eraso gehiegi, udan ere bai. Jaietan denak balio duenaren sinesmena presente dago oraindik. Hausnartu beharko dugu zer egin jai ereduarekin, alkoholaren kontsumoarekin, zeina aitzakia gisa erabiltzen den erasoetan.

Gizartea jabetu dela esan al dezakegu? Ondo erantzuten ari al da?

M. M. Zalantzak ditut. Ez daukagu datu soziologiko asko, baina aipatu ditzakegu azaroaren 25aren harira Eusko Jaurlaritzak ateratako datuak. 10etik 4k pentsatzen du emakumeek salaketa faltsuak jartzen dituztela. Adierazle oso arriskutsua da, erakusten du nola ez garen ari lortzen imaginario kolektiboaren aurreiritziak puskatzen. Nahiz eta datuek dioten populazioaren gehiengoa ikaratu egiten dela indarkeria egoeren aurrean. Baina, espainiarren %33k bikote harremanetan kontrolatzea ez du indarkeriatzat hartzen.

Hor eragin behar dugu, zeren indarkeria egoera zehatzen gainean jarduten badugu, laguntza-lana baino ez dugu egingo, zehatzagoa, eta babestera zuzendua. Indarkeriarik ez egotea nahi dugu eta horretarako aurreiritziak puskatu behar dira.

Eusko Jaurlaritzaren inkestan datu positiboak ere bazeuden.

M. M. Egia da gaur egun ez dela lehen bezala legitimatzen, baina orain justifikatu egiten da. Emakumeak biktimitzat hartzen dira; historikoa direla, gauzak bere onetik ateratzen dituztela, “ez da hainbesterako”, “ez dago horrela jarri beharrik”, ez dira aintzat hartzen, “jolasak

dira”... Jolasena eskolan gertatzen da, neskaren aurkako indarkeria dagoenean inguru sozialak esango du jolasak direla. Zenbait indarkeria maila asko onartzen da. Hil ez, hori oso zatarra da, egia da, gizarteak esan du, “honaino iritsi gara”. Hil ez, baina kontrolatu...

M. V. Datu baikortzat dut, eta poza hartu nuen, inkesta berean populazioaren %90ak indarkeriarekiko mespretxu orokorra erakusten du eta oso interesgarria iruditu zitzaidan indarkeria horren zergatizat gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak aipatu izana. Jauzi kualitatibo oso interesgarria iruditu zitzaidan, esan bai bortizkeria gaizki dagoela, baina beti ez baitugu lotzen desberdintasunarekin. Aurrerapenetan pentsatu nahi dut, zeren bestela etxean geratuko nintzateke negarrez, eta ez nuke borrokan segituko.

M. M. Ez geratu etxean, tabernara joango gara! [barrez ari dira hirurak].

M. V. Baina egia da inkesta berean agertzen zela tratu txar psikologikoa ez dela hain larria, eta salaketa faltsuen ustearen datua ere hor dago. Berdintasuna lortu dugunaren irudikeriak asko kezkatzen nau. Unibertsitatera goazenean gazteek diote salbuespenezko egoerak direla gaur egungoak eta ez dela salaketarik behar. Burbuila artifizialean bizi gara, eta gero ez dugu ulertzen zergatik gertatzen den indarkeria. Justizia Sailak esaten du salaketa faltsuen mitoa sortzen ari dela, eta min handia egiten ari dela. Horrelako aurreiritziek, emandako pauso gutxi horiei min ikaragarria egiten diete.

I. A. Adierazle kontraesankorrak ikusi ditut nik ere. Gazteetan ikusten dudanak beldurtzen nau. Batzuetan atzera egin dugula iruditzen zait, ez dut gogoan nire garaian 12 urteko mutilak izugarrikeriak esaten aritzea, tailerrak ematen dizkiedalako diot hori eta inkestak ere hor daudelako. Adin txikiko gero eta gehiagok egiten dituzte eraso larriak, sexualak eta erailketak. Batik bat maitasun erromantikoaren imaginarioa sekulako mina egiten ari

“ Maria Viadero

Erasotzaileak beldurra izatea nahiko nuke, baina ez feministok eraso egingo diogulako, deseroso sentiaraziko dugulako, baizik eta edozein erasotzaile matxistari erantzun egingo diogulako. Gaur egun indarkeria mota asko zigorrik gabe geratzen dira”

da, kontrola, jelsia... Aztertzea da, zeren maitasunaren izenean gazteengan jarrera asko onartzen eta naturalizatzen ari dira eta oso jarrera kezagarriak dira. Alde horretatik begiratuta ez dakit zenbateraino aurreratu dugun.

Jai giroari lotuta, jai batzordeetan adibidez, kontzientzia, edo behintzat, lanketa gehiago ikusten dut. Lehen emakumeek baino egiten ez zuten lana orain gizon batzuek ere egiten dute, arduratzen ari dira. Jende gehiagok adierazten du mespretxua, nahiz eta mespretxatzen diren kasuak larrienak izan. Baina ez dadila mespretxu hutsean geratu. Barne lanketa egitea beharrezkoa da eta hausnartu beharra dago gizon moduan ni ere arazoaren parte naizen edo ez, zein rol betetzen ditudan nik, zein jarrera hartzen ditudan. Sakonera jo behar da eta oraindik ez dugu lortu sustrai horietara iristea.

Mugimendu feministaren hainbat ekintza oso kritikatuak izan dira edo deserosotasuna sortu dute gizarteko hainbat sektoretan. Bi aztertuko ditugu ondoren; Gasteizko jaietan eraso baten inguruan sortu den eztabaida eta Iruñeko gaueko manifestazioa. Has gaitezen Gasteizkoarekin.

I. A. Erasoa izan zen, mugimendu feministak erantzun egin zion jai batzordeek eta blusek



onartuta zuten protokoloaren arabera. Hala ere, erantzun horrek zigor soziala izan du, erantzuna epaitu dute. Hortik ateratzen dudan ondorioa hauxe da: gizarteak onartzen du erasoak daudenean elkarretaratzeak egitea eta dena ondo dago erasotako biktima gisa agertzen garen neurrian, “gaixoak! indarkeria mespretxatu behar dugu; kalera aterako gara esatera oso gaizki dagoela emakumeak jotzea”. Alabaina, guk erantzun egingo dugula erabakitzen dugun momentuan, biktima roletik ateratzen garenean: “Pasa egin zara”, “dena puztu duzu”, “feminazia zara”... Gasteizen horixe gertatu da, erantzun egin zenez batzuek lepora egin zuten salto. Ez da onartzen oraindik gure burua defendatzeko eskubidea eta zilegitasuna dauzkagula.

N. V. Bereziki mingarria egin zitzaidan. Protokoloa sinatuta zegoen, urteak dira lantzen ari zirela, mugimendu feministak talde mistoekin landu du. Erasoa sexista gertatu zen, erasotzaileek barkamena eskatu zuten, eta kito. Protokoloak

pertsona horiek konpartsetatik bidaltzea eskatzen zuen. Alegia, indarkeria mota hori arinagoa dela ulertzen da, beraz barkamena eskatzen badut, mutil jator eta ulerkor moduan geratuko naiz, eta ez naute botako konpartsetatik. Erailketa denean bai, baina bestelako indarkeriak direnean zalantza asko dauzkagu, erantzuna ez da tinkoa, inondik ere. Ez dago diskurtsorik indarkeriaren *continuumaz*, bere konplexutasunaz, alegia, eraso sexista dela iraintzea, lerdea dariola ibiltzea edo igurztea.

M. M. Mugimendu feministak egiten duen planteamendu bakoitzak denok mugitzera behartzen gaitu, inor ezin da geldirik geratu, ez emakume eta ez gizon.

Indarkeria zer den definitzeko emakumeen sinesgarritasuna beti zalantzan jartzen da, Mariak esan du. Indarkeriak ondorioak izan behar ditu. Indarkeriari aurre egiten dioten emakume batzuek esaten dute beraiek egin dutela alde



“ Maitena Monroy

Estrategia zirikatzaileak pentsatu behar ditugu (eta badiot, feminismoa beti da probokatzailea), baina egiaz zer nahi dugun pentsatu behar dugu, beldurra aldez aldatzea? Nik ez, nik lotsa nahi dut aldez aldatzea”

tsi digute erasokorrak ez izaten, amorrua estaltzen, oldarkortasuna txarra dela esan digute. Lehen kolpean eragiten duen mespretxua ulergarria dela iruditzen zait, baina garrantzitsuena da aztertzea zergatik ez dugun aldarrikatzen gure amorrua. Oldarkortasuna atera ahal izatea munduan bizirauteko erreminta bat gehiago da. Emakumeoi kendu egin digute, gizonei ez.

auzotik edo kuadrillatik, beraiek direla lagunik gabe geratu direnak, haiek zokoratu dituzte, ez erasotzaileak. Ez da nahikoa barkamena eskatzea, prestigio soziala galdu behar du. Hitzartuta zegoen. Beste gai batzuetan hitzarmenak bete egiten dira. Emakumeen aurkako indarkeria egokitzen denean aspalditik adostutako hitzarmenak apurtzen dira.

Iruñeko gaueko manifestazioak.

I. A. Gaueko manifestazioek zalaparta handia sortu dute. Batetik, imaginario kolektiboa apurru da erabat, alegia, emakumeok nolakoak garen eta zein rol bete behar ditugun. Beltzez jantzita, txanoarekin, argi-zuziekin, emakume bortitzak, erasokorrak... Ustea bestelakoa da: emakume goxoa, sentibera, enpatikoa. Jendeak ez du ondo ulertzen estetika hori, emakumeek ere mespretxatu dezakete eszenaratze hori. Txikitatik eraku-

Bestetik, mespretxu handia eragin du “Beldurra aldez aldatzera goaz” leloak. Inork beldurrik ez duela izan behar, horrela ez dela ezer konponetzen, indarkeriak indarkeria eragiten duela, arrazoitu da. Diskurtso horiek batzuetan utopikoak iruditzen zaizkit, baita hipokritak ere. Bortizkeriak bortizkeria gehiago eragiten duela? Bortizkeria asko dago gizarte honetan, estatuek beraiek ere indarkeria gehiagorekin erantzuten dute erasotuak sentitzen direnean.

Horretaz gain, garrantzitsua da esaldi horri tesuingurua ematea. Oldarkortasunarekin bezala, zer gertatzen da beldurrarekin? Emakumeak beldurrean hezi gaituzte, kontrol mekanismo gisa erabili da historian, ez gaitezen egon halako tokietan, ez ditzagun halako gauzak egin, ez gaitzen halako ordutan kalean ibili. Populazioaren erdia beldurrez bizi da, hori bortizkeria sinbolikoa da. Leloa, emakume guztiok bizi dugun indarkeria sinboliko horri erantzuteko modu bat

dela uste dut. Ez dut uste gizonak beldurrez bizi behar dutenik, erasotzaileek baizik. Nahiko nuke hainbesteko indarkeria ez legokeen gizartean biziko bagina eta inork beldurrik izango ez balu. Ez naiz bizirauteko beldur fisiologikoaz ari, erai-ki diren beldurrez baizik. Nahiko nuke beldur horiek deseraikitzea, baina horra iritsi bitartean, galdera bat sortzen zait: zilegi da erasotzaileak nahiko beldur izatea eraso ez dezan? Gure bizitzak eta gorputzak daude jokoan.

M. V. Amorrutik eta suminduratik emandako erantzuna izan da. “Beldurra aldeztatzera goaz” leloa landu duten lagunek apustu oso sendoa egin dute. Probokazio estrategia oso argia egin dute erantzun eta eztabaida soziala eragiteko. Zeharo ados nago, halako eszenaritzeak erreakzioa du. Emakumez dagoen eredu (lasaiak, pedagogikoak, enpatikoak, gertukoak, goxoak) apurtu da. Bortizkeriarekin lotu izan ohi diren elementu estetikoetatik gertu dauden ezaugarriak erabili dira, baina biktimaren eredu puskatu da. Oraindik uste da emakumeok indarkeriatik askatzeko besteen zain egon behar dugula. Jendearen eskemak hautsi ditu.

Mugimendu feministaren aniztasunaz asko esan nahi du ekintza horrek. Niri ere kontraesanak sortzen dizkit, baina interesgarria iruditzen zait estrategia desberdinak konbinatzea, batzuk

pedagogikoagoak, besteak laguntzazkoak, heziketari lotutakoak, epe luzeak, beste batzuk mediatikoagoak, jendea aztoratzekoak.

Erasotzaileak beldurra izatea nahiko nuke, baina ez feministok eraso egingo diogulako, deseroso sentiaraziko dugulako, baizik eta edozein erasotzaile matxistari erantzun egingo diogulako. Gaur egun indarkeria mota asko zigorrik gabe geratzen dira.

Oso ondo ulertzen dut talde batzuek amorrua ateratzea zirrara eragiten duten estrategien bidez. Pena ematen dit, pankartaren atzean jartzen zara edo argi-zuzia daramazu edo burua estalita daukazu eta baduzu lelo bat, baina mundu guztiak ez du ulertzen zure buruan zer dagoen eta zein den zure arazoiketa. Batzuek usteko dute erasotzaileak beren kabuz zigortzen hasiko direla hainbat talde feminista. Kontua ez da hori, baina geldirik ere ez gara egongo.

M. M. Leloek ez naute deseroso sentiarazten, arazoa da zein paradigma eraiki nahi dugun. Zein ibilbide du “Beldurra aldeztatzera goaz”ek? Lotsak aldatu behar du aldeztatzera. Bada garaia erasotzaileek lotsa sentitu dezaten. Baita gizarteak ere, ez duelako parte hartzen. Emakumeak ez gara beldurrean hezi, sexu terrorean baizik. Izan ere, mina egiteak ematen digu beldurra, indarkeria



**Zarauzko Udala
Parekidetasun Saila**

Zigordia kalea, 33 - 1.
20800 ZARAUTZ
☎ 943 005 117
Ordutegia: 08:30-14:30
berdintasuna@zarautz.eus
berdintasunazarautz.wordpress.com

egoerari aurre egiteak baino. Emakumeek esaten dute “blokeatuta geratuko naiz, eta gainera beldurra ematen dit, erasotzaile gaixoa”. Oldarkortasuna erakusteko dugun eskubidearen onarpenarekin daukagu arazoa. Zikiratuak izan gara. Bortizkeria diferentea da, kulturala da, eta mina egitea du helburu, suntsiketa.

Nik utopikoa izan nahi dut, zeren bestela tabernara noa. Beste paradigma bat egin dezakegu, non gizarte arauen erdigunean gizakien zaurgarritasuna ezarriko dugun, ez emakumeena soilik, gizaki guztiena. Denok gara Siria, denok gara Paris, denok gara Kongoko emakumeak, denok gara indarkeriaren biktimak. Niri ere gerta dakidake.

Performanceari buruz, ez da hain berria, txanoa janzteia salbu. Mariak esan du biktimek nolako estigma bizitzen duten eta nola lotsatuta sentitzen diren, bada hain justu gai honetan aurpegia eman beharko genuke eta esan: “Zuk sentitu behar duzu lotsa, zuk estali behar duzu”. Arazoa ez da beldurra duten ala ez. Indarkeria erabiltzen duten gizon matxistek beldurra dute emakumeekin bizitza berdintasunean elkarbanatzeko, beldurra dute emakumeengan duten boterea galtzeko. Ez dut uste irtenbidea denik gero gertatuko zaienagatik gizon matxistek beldurra izatea. Irtenbidea elkarbizitzarako arauak ezartzea da, ondo bizitzeko gutxienekoak adostea.

Estrategia zirikatzaileak pentsatu behar ditugu –eta badiot, feminismoa beti da probokatzailea–, baina egiaz zer nahi dugun pentsatu behar dugu, beldurra aldeztu aldatzea? Nik ez, nik lotsa nahi dut aldeztu aldatzea. Eta ez diot batzuetan ez delako pedagogikoa beldurrarena, pedagogia egiteaz aspertuta gaude.

Bada oraintxe galdetu nahi nizun ez ote dagoen pedagogia gehiago egiteko beharra gauza horiek denak ulertzeko.

M. M. Belarriak garbituta dauzkanarentzat egin behar da pedagogia. Atzo bertan lantokian ari

“ Idoia Arraiza

Badirudi hemen ez dela ezer gertatzen. Betidanik egon dira lehen eta bigarren mailako biktimak herri honetan, baita lehen eta bigarren mailako indarkeriak ere”

zitzaidan bat esaten emakumeak ere bortitzak direla, “zein gaiztoak zaretan emakumeak!” zioen. Pentsatu nuen: “Bada hurrengo bizitzan ikusiko gara, lagun!”. Zer esango diot?

Jendea sentsibilizatu behar da, ardura eta botere postuetan daudenak, postu publikoetan daudenak, baina norbanakoekin hasten bagara, pedagogia puntu bateraino. Aurreiritziak daude eta horiek ez dira borrokatzen pedagogiatik, emozioetara iritsi behar da. Lortu behar dugu jendeak sentitzea bere arazoa dela. Jendeak lotsa senti dezala alboan matxirulo bat duelako. Beraz, kalera ateratzerakoan ondo pentsatu behar dugu zer egin, ez pedagogiatik bakarrik, baizik eta jakinda hori den transmititu nahi duguna ala momentuko amorruren ondorioa izan den.

I.A. Gaueko manifestazioak ez dira antolatu paradigma feminista aldatzeko, mugimendu feministaren estrategia bat gehiago da, ez da proposamen oso eta behin betikoa. Hain zirikatzaileak izan ez balitz ez zukeen lortuko izan duen oihartzuna, giroa aztoratzea. Lehen indarkeriak jaietan edo eremu publikoetan ez zeukan erdigune izatea lortu du, eta eztabaidatzea, alde egoteko edo kontra egoteko, baina eztabaidatzea beti izango da positiboa. Ez da izan ezeren irtenbide. Beste mila gauza bezala, modatik pasako da eta gauza gehiago berrasmatu beharko dira.

Txanoari buruz, ulertzen dut Euskal Herrian zein mamu piztu dezakeen, baina beste paralelis-



mo batzuk egiten hasita, zapatistek esaten zuten estali beharra zeukatela ikusiak izateko. Bestalde, guztiok aurpegiak estaltzean izaera kolektiboa indartzen da. Ni ez naiz erasotua Idoia izateagatik, emakume izateagatik baizik. Edonor izan daiteke, eta horregatik, bat erasotzen badute, guztion aurkako eraso da, eta guztiok erantzungo dugu.

Inor ez dabil hor zehar jipoiak ematen. Bortizkeria oso maila sinbolikoan geratzen da. Kontua ez da bortitzak garen ala ez, baizik eta oldarkortasunaren norabidea. Ez da gauza bera oldarkortasuna norbait erasotzeko erabiltzea edo defendatzeko.

M. M. Ados, testuinguruak oso garrantzitsuak dira. Horregatik ezin zaigu ahaztu hemen estalita joateak esanahi bat daukala. Nik uste dut testuinguru honetan aurpegia eman behar dela. Amparanoiak [musika talde espainiarreko kantaria Amparo Sánchez da] esan zuen, liburua idatzi zuenean emakume asko gerturatu zitzaiola esanez haien buruek klik egin zutela. Pertsona ospetsuak edo erdi ospetsuak indarkeria matxistaren

“ Maitena Monroy

Zenbait indarkeria maila asko onartzen da. Hil ez, hori oso zatarra da, egia da, gizarteak esan du, ‘honaino iritsi gara’. Hil ez, baina kontrolatu...”.

biktima izan dela esatea, aurpegia ematea, garrantzitsua da. Beste gai batzuetan agian ez da hala, mexikarrena aipatu dugu, beste egoera batzuetan edo ikusezin bihurtzen zara edo hil egingo zaituzte.

(Maitena Monroyk mahai-ingurua utzi beharra izan du)



BURBUJA.INFO

Sanferminetako eraso sexisten harira bi urtez jarraian gaueko manifestazioa antolatu dute Iruñean. Beltzez jantzita doaz emakumeak, asko burua estalita eta argi-zuziak eskuetan dituztela. Leloak hala dio: "Beldurra aldeztalderaz goaz". Estetika eta mezu horrek zalaparta eta eztabaida sortu du jendartean.

M. V. Gaueko manifestazioetatik gustatu zaidan beste kontu bat fokua erasotzaileengan jarri izana da, eta ez emakumeengan. Aldaketa estrategikoa izan da. Elkarretaratzeetan sarri emakumeak pairatu duen indarkeriaren salaketa egiten da, emakumeari eragindako ondorioak azpimarratzen ditugu, eta ez dugu nabarmentzen hainbeste gizonaren ardura.

Bortizkeria ezin da justifikatu ez bada autodefentsa egoeran. Iruñekoak estrategia sinbolikoa izan da. Manifestazioan asko kontrolatzen da inolako indarkeria egoerarik gerta ez dadin, bereziki lantzen dute antolatzaileek, edozein erantzun bortitzen aurrean eutsi, ez dezagun aitzakiarik eman gure aurka egiteko.

Lagunekin aipatu dut aurpegia estalita ateratzearena, izan ere, eztabaida gehien horrek sortu du. Aipatu dugu sinbolismo horren zati batek esan nahi zuela bat ukitzen badute denak ukitzen gaituztela, ez daukagu zertan gure aurpegia erakutsi, zeren denok bat gara. Denak elkarrekin gaude, talde sendoa gara borroka feminista egiten. Ez dakit mezua iritsi den.

Ulertzen dut, indarkeriak indarkeria eragin dezake eta hor deseroso senti gaitzke. Baina bestea ere ulertzen dut, pizgarria da, igandeko familia bazkarian gai honetaz hitz egin ahal izan da, eta bestela ez litzateke aipatu ere egingo. Diskurtsoan sakontzen segi behar da, ikusteko zerk asebetetzen gaituen gehiago eta zerk gutxiago.

I. A. Ez gara feminista guztiak elkartu eta esan “orain horrelako manifestazioak egingo ditugu”. Iruñekoa emozio batetik atera zen, behar batetik, ni talde horretan nengoen. Jai batzordeekin lanean ari ginen, autodefentsa feministako taillerak antolatzen, erakunde publikoekin sanferminetarako prestatzen. Amorratuta geunden, Txantrea auzoan erasoia izan zen bolada hartan eta bazterrak aztoratu zituen. Erantzun sendoagoa emateko beharra sentitzen genuen, kalera atera eta amorrua erakusteko beharra genuen, nazkatuta gaudela esateko beharra. Manifestazio hura ikaragarri indartsua izan zen, ez zegoen pankartarik, batukada zihoan eta denok oihuka gindoen, ukabila jasota. Ez dakit zenbat urte diren ez naizela izan manifestazio batean amorrua sentituta, zerbait sentituta, pipitak jaten aritzeko moduko manifestazioetara ohitu gara, eta aldarrikatzen ari garena larria izanda ere ez zaigu barrura sartzen.

Jarrera aldaketa zegoen, oso enpoderatzailea izan zen, eta ahalduntzen zara baldin eta aurrez gaia landu baduzu, aztertu baduzu zergatik zauden hor, zergatik zauden txanoz estalita, beltzez jantzita. Gero, Euskal Herriko beste toki batzuetan egin dira horrelako manifestazioak, baina bakoitzak bere kabuz egin du. Horrek esan nahi du beste emakumeak ere behar horrekin identifikatu direla, baita estetika horrekin ere.

“ Idoia Arraiza

Gaueko manifestazioa hain zirikatzailea izan ez balitz ez zukeen lortuko izan duen oihartzuna, giroa aztoratzea. Lehen indarkeriak jaietan edo eremu publikoetan ez zeukan erdigunea izatea lortu du, eta eztabaidatzea, alde egoteko edo kontra egoteko”

Toki batzuetan eztabaidagarriagoa izan da agian, zeren aurreko lanketa nahikoa ez da egin eta “ez dakit zergatik nagoen hemen”, “ez dakit zergatik estali dudun burua”... eta badator norbait egiten ari garena kritikatzera eta ez dakit arrazoiak ematen. Oso garrantzitsua da jakitea zergatik zauden hor, bestela ez dizu balio ahalduntzeko. Iruñean, bigarren urtean pankarta handi bat atera genuenean, malkoa erortzen zitzaidan, sendotzen ari zarela konturatzen zara eta ahalduntzea kolektiboa ere izaten ari dela. Niretzat oso baliagarria izan da.



Oñatiko Udala

Indarkeria sexistarik ez!

Zapata Gorriak

Elina Chauveten Arte Instalazio publikoaren erreplika



INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

Idoia Arraiza: "Konplizitateak eta jarrera pasiboak albo batera utzi, eta politikoki zuzena izateari utzi, gero ez baduzu ezer egingo edo ez baduzu arazoa zure egingo. Zer ari zara egiten edo zer ez zara ari egiten hau guztia iraurarazteko?". Argazkian Iruñeko Gazteluko Plazan egindako Beltzez Jantzitako Emakumeen performancea.

Euskal Herrian, emakume bat hiltzen duten aldiro elkarretaratzea egiten da, Emakumeen Mundu Martxak antolatuta. Protokoloak daukana da erantzuna automatizatzen duzula, prestatuta daukazu erantzuna, baina zure bizitzan normaltzat, naturaltzat, hartzera heltzen zara. Baina gu hiltzen ari dira! Badirudi hemen ez dela ezer gertatzen. Betidanik egon dira lehen eta bigarren mailako biktimak herri honetan, baita lehen eta bigarren mailako indarkeriak ere. Zeruak eta lurra mugitu dituzte batzuegatik eta beste batzuegatik ez. Dena dela, ez dut esan nahi elkarretaratzeak egiteari utzi behar zaionik, funtzio bat betetzen dutelako. Baina argi dago oso eragin mugatua dutela eta batzuk jasaten dugun indarkeriaren neurriko bestelako erantzun bat ematea beharrezkoa ikusten dugula. Berrasmatzen segi behar dugu

eta mugimendu feministaren potentzial bat hori da, sormena erabiltzeko eta borroka molde ezberdinak integratzeko daukan gaitasuna.

Bestalde, zure herrian gaueko manifestazioa antolatzen bada ez zaude derrigortuta esanda bezala joatera, nahi baduzu txanoa jantzi, nahi baduzu ileordea eraman, eta bularrak erakutsi nahi badituzu, erakutsi, dena izango da ongi etorria. Ez daukagu denok zertan gauza bera egin, eta ez daukagu zertan gogorik ez duguna egin. Dena den, erabakitzen badugu horrek ez digula balio eta albo batera utzi behar dela, bada metamorfosia egingo dugu.

M. V. Egia da, manifestazio horietan emakumeei nahi duten bezala joateko askatasuna ematen



“Mugimendu feminista eta bestelako taldeak indarkeria matxistaren kontra estrategia berriak pentsatzen burua puskatzen ari gara, gaueko manifestazioak, sare sozialak, performanceak, zapata gorriak, beltzez jantzitako emakumeak, agian lehen gutxiago erabilitakoak eta orain gehiago erabiltzen ari garenak”. Maria Viadero.

zaie, agertzeko modu baten proposamena egiten da, baina bakoitzak erabakitzen du estali ala ez, adibidez. Manifestazio horiek izandako erantzunaz gogoeta egin behar da. Bilbon adibidez, jai garaian, jende askok eta gazteek hartu zuten parte. Agian, bestelako ekintzetan parte hartzen ez zuen jendea gerturatzea lortu dute.

Mugimendu feminista eta bestelako taldeak indarkeria matxistaren kontra estrategia berriak pentsatzen burua puskatzen ari gara, gaueko manifestazioak, sare sozialak, performanceak, zapata gorriak, beltzez jantzitako emakumeak, agian lehen gutxiago erabilitakoak eta orain gehiago erabiltzen ari garenak. Mugimendu feministak esan izan duen “Eratorik ez erantzunik gabe”, aterki perfektua da estrategia multzoa

biltzeko. Lelo hori gu denotaz ari da, “eta zu zer ari zara egiten indarkeriaren kontra?”.

I. A. Maitenak esaten du lotsak aldatu behar duela alde eta ados nago esaten duen zentzuan. Emakumeok lotsa eta errua sentitzeari utzi behar diogu. Hala ere, Maialen Lunjabiori entzun nion irratian esaten ardura dela alde aldatu behar dena. Lotsa zerbait gertatu denean sentitzen duzu, eta gure helburua prebenitzea bada eta erasoak ez gertatzea, egokiagoa iruditzen zait ardura terminoa erabiltzea, eta hor kokatzea erakunde publikoak eta gizonak. Konplizitateak eta jarrera pasiboak albo batera utzi, eta politikoki zuzena izateari utzi, gero ez baduzu ezer egingo edo ez baduzu arazoa zure egingo. Zer ari zara egiten edo zer ez zara ari egiten hau guztiau iraurazteko? ■

INDARKERARIK GABEKO BIZITZAREN ALDEKO EMAKUMEAK

NOR GARA?

Era askotako emakumeak gara, eta indarkeriarik gabe bizi nahiak elkartzen gaitu.

Astean behin biltzen gara:

- Zalantza eta kezkei erantzunak bilatzeko.
- Beldurrak bideratzeko.
- Entzunak eta errespetatuak izateko.
- Baliabide eta laguntzez informazioa izateko.
- Elkar sostengatzeko/laguntzeko eta indarkeriatik, tratu txarretatik eta irainetik nola irten ikasteko.
- Hitz egiteko eta elkar entzuteko lekua.

Dugun INDARRA ETA ADOREA garbiago senti ditzagun.

NOLA?

Taldearen laguntzaz, norberak hartzen ditu erabakiak, norberaren errealitate, baliabide eta indarren arabera.

BALDINTZAK

Bakoitzaren erritmo eta erabakiak errespetatzea.

Eguna: ASTEAZKENETAN (jal egunetan ezlik)

Hasiara AZAROAK 4

Orduetgia: 17:30etik 19:30era

Tokia: Errenteriako MERKATUZAR

HAURTZAINDEGI ZERBITZUA

(Hiru egun lehenago eskatu)

Kontaktua:

Errenteria: 943449576 berdintasuna@errenteria.eus

Lezo: 943521094 ongizate.lezo@gipuzkoa.net

Oiartzun: 943490552 gizarte@oiartzun.org

Pasaia: 943004320 berdintasuna@pasala.net

Dinamizatzailea: SORBURU

Antolatzaileak: Oarsoaldeko Udalak



Errenteriako
Udala



Oiartzungo
Udala



Lezoko Unibertsitateko
Udala